

Egunero aipatzen ez denaz

Miren Azkarate
Badiola

Datuak eta zifrak. Azken urte luze honetan iruditzen zait bi hitz hauek entzunda gai bakarri lotuta daudela: covid-19ak eragindako positiboez ari naiz. Hitzeman nion neure buruari ez nuela gai honetaz hitz egingo tartetxo honetan eta emandako hitz hori betetzen jarraituko dut. Jada nahikoa eta soberan hitz egiten dela uste dut, askotan kalean eta hedabideetan beste gairik egongo ez balitz bezala dela susmatzen dut, zenbatzeko besterik existituko ez balitz bezala! Ba, bai, badaude beste hamaika gai eztabaidarako eta oso aipagarriak diren beste zerrenda batzuk.

Tortura txinatarreko ur tantak bezala tan, tan, tan... amaiezina eta etenik ez duena baita, adibidez, Afrikatik Europarako bidean bizitza galtzen duten etorkinen zerrenda. IOM Nazioarteko Migrazio Erakundeak eman dituen datuen arabera (ziurrenik gehiago izango dira), 1.146 pertsona zendu dira urtariletik hona, iazko bikoitzak, justu heriotza ekidin nahian beren herrialdeetan. Beste gai bat aipatzearren eta oraingoan etxean geratuz, Euskal Herrian aste honetan 33. langilea hil da bere beharra egiten zuen bitartean. Egunero-egunero suertatzen diren datuak eta zifrak dira, tan, tan, tan...

Iturri batek itokinak dituen bezala. Zoritxarrez etenik ez dutenak eta, gainera –hori gutxi ez eta–, albistegietan eta kalean, lagunartean, familian, politikarien agendetan eta abar merezi duten lekua topatzen ez duten gaiak dira. Erruleta makabro baten gisara, hurrengoan nori tokatuko zaio? Nor izango da kontagailu latz horietan hurrena? Markagailuetako zenbakiak gora doazen bezala, kontaketa hauek ere ez dute etenik. Bi gai besterik ez ditut mahaigaineratu. Betiko zifra eta datuez gain, egin diezaiegun lekua hedabideetan beste plano batzuetan dauden gai latz hauei. •

Niniak

Galder Gonzalez

Nini» hitza euskaraz, haur txikien hizkeran, «haurra» adierazteko erabiltzen dugu. Gaztelaz berriz, “ni-ni” kontzeptua, “ez ikasi eta ez lan” egiten ez duten gazteak izendatzeko erabiltzen da. Aurreko astean, osasun zentrora joan behar izan dudan horietako batean, belarria luzatu nuen bi erizainek zerabilten gaiari arreta jartzeko. Haien hitzetatik tiraka, “ni-ni” esamolde horren hirugarren adiera bat sumatu nuen, ondo labur dezakeena egoerak erizain horiei sortzen zien ezinegona. Euskara jatorrean elkarri kontatzen zioten berriki beren eguneroko lanean izan zituzten esperientzien berri. Hase-

re antzera sumatzen nituen: nonbait gaztetxo asko covid proba egitera hurbildu zen, ustez axolagabe antzera ibili zirelako eta haien portaera larregi berekoa antzematen omen zuten. Berekoieria horren berri ematerakoan erdarazko adiera erabiltzen zuten, “yo-yo” modura adieraziz. Eskubideak bai baina betebeharrak ahaztu egiten zirela esanez amaitu zuten. Edonork pentsa lezake hitz egiten ari direnek adinez erizain helduak beharko luketela. Jakina da azkenaldi honetan gazteak errudun egiteko joera areagotu dugula eta covid-aren aurreko portaerak ere gazte-helduen arteko arrakala nabarmendu duela.

Hala izan balitz, beharbada ez ninduketen harrituko, baina tertulian ari zirenak hogeitaz urte pasatxo zituzten erizainak izanik, belaunaldi arrakala ezin izan zitekeen gazteen portaeraz eman zezaketek epaiaren arrazoia. Egunerokotasunean birusaren aurkako borrokan ari diren osasun langileak izateak eta kutsatzeak eragiten dituen ondorioen jakitun izateak pentsarazi zidan arrakala hori, adinak baino gehiago, ezagutzak, eskarmentuak eta sen onak sortzen dutela. Gazte zein heldu, erizain horiei aitortu dizkiegun balioak bizitzak eskaintzen digun zeinahi aukera zentzuz epaitzeko baliatzeak on egingo digu. •